
HARREMANAK

- Bezeroak erakartzeko marketin kanpaina desberdinak egingo ditugu. Alde batetik, sare sozialetan eguneroko erabileran jardungo dugu. Bestalde, webgune bat izango dugu bertan, proiektuaren eta artisten inguruko oinarrizko informazioa, argazki eta bideoak, emanaldietarako / erakusketarako sarreraren salmenta, eta gurekin harremanetan jartzeko helbide eta telefono zenbakiak agertuko lirateke.
- Hau guztia zabaltzeko, sare sozialetan pertsona ezagunekin egingo genituzke kolaborazioak. Bestalde, iragarkiak ere argitaratuko genituzke, bai instagramen, baita facebooken ere.
- Bi astero aldatuko dira artistak, eta hilabete amaieran emanaldia / erakusketa lau aste horietan egon direnena izango da. Bi aste horietan dauden artisten informazioa egongo da eskuragarri, baina bigarren hamabostaldian aurkitzen bagara, aurreko bi astetako artisten informazioa ere agertuko da, laburbilduz eta txiki. Emanaldira / erakusketara etorri edo ez erabakitzeke orduan informazioa izateko.
- Kontziente gara Donostiako Tabakalerak eta Bilbon bota zuten Kukutza gaztetxeak gure proiektuaren antza izan dezaketela a priori. Baina badaude hainbat ezaugarri bietatik bereizten gaituztenak, horien artean, informazioa.
- Kukutzara, gaztetxe batera kontzertu bat ikustera, edo zure taldeaz entsaiatzera joan zintezke, baina Ikigai, artista txikien inguruko informazioa jasotzeko da. Donostiara egun pasa joan eta lokalera sartu zaitezke, bi aste horietan aurkeztuko diren artisten informazioa jasoz.
- Tabakalera ere egin dezakezu hori, baina jada ezarrita dagoen emanaldi/erakusketa zehatz bat ikustera joango zara, zure interesen arabera. Ikigaiak, artista berri hauek ezagutzeko aukera ematen dizu lehenengo, ezagutzen ez dituzunez, beraien lanak ikusi edo entzuteko, eta ondoren emanaldira / erakusketara joatea erabakitzen baduzu sarrerak eros ditzakezu bertan.